XEHETASUN AZTERLANA

“LH 1-2 GELEN ERABERRITZEA ETA SUKALDEAREN HAUNDITZEA”

LA SALLE IKASTETXEA, ZARAUTZ

LA SALLEKO GURASO ELKARTEA

MARINA LERTXUNDI MANTEROLA / ARKITEKTOA

2017KO URTARRILLA

XEHETASUN AZTERLANA : LH1-2 GELEN ERABERRITZEA
ETA SUKALDEAREN HAUNDITZEA

ERAGILEA : LA SALLEKO GURASO ELKARTEA

LEGUA : LA SALLE IKASTETXEA, ZARAUTZ

DATA : 2017KO URTARRILLA

ARKITEKTOAK : MARINA LERTXUNDI MANTEROLA

A.- MEMORIA

1.- KOKAPENA

2.- GAUR EGUNGO EGOERA

3.- GAIA ETA EGITARAUA

4.- ZARAUZKO HIRI ANTOLAMENDUAREN PLAN OROKORRAREN BETETZEA.

B.- PLANOAK

1.-	**KOKAPENA**	**1/5000-1/750**
2.-	**EGUNGO EGOERA. BEHE SOLAIRUA**	**1/200**
3.-	**HANDITZEKO PROPOSAMENA**	**1/200**
4.-	**GEROKO EGOERA**	**1/200**

XEHETASUN AZTERLANA : LH1-2 GELEN ERABERRITZEA
ETA SUKALDEAREN HAUNDITZEA
ERAGILEA : LA SALLEKO GURASO ELKARTEA
LEGUA : LA SALLE IKASTETXEA, ZARAUTZ
DATA : 2017KO URTARRILLA
ARKITEKTOAK : MARINA LERTXUNDI MANTEROLA

A.- MEMORIA

1.- KOKAPENA

Zarautzen dagoen La Salle ikastetxeko LH-DBHko eraikuntzan lan dezberdinak egin nahi dira, behe solairuan. Alde batetik, LH1-2 gelentzat sarrera berri bat egin nahi da eta bestetik sukaldearen haunditzea.

2.- GAUR EGUNGO EGOERA

Gaur egun, LH1 eta 2 ko gelak, 2 etapa bakoitzeko, beraz, guztira 4 gela, LH-DBHko eraikuntzaren behe solairuko hegoaldean kokatzen dira. 2003. urtean jangelaren handipena egin zen ikastetxean. Jangelaren handipenarekin, L.H.1-2-ko ikasgelek, erabilera anitzeko gela bat eta kanpoaldearekin zuten sarrera zuzena galdu zuten, jangelak hartu zuelako espazio hau. Honen ondorioz, L.H.1-2-ko haurrek D.B.H-ko ikasleen sarrera bera erabiltzen hasi behar izan zuten. Eraikineko ikasle guztientzako sarrera bakar bat izatean enbutu bat sortzen da ikastorduen hasieran eta amaieran, jangelara doazenak ere bertan geratzen direlako. Bestetik, LH1 eta 2ko ikasle askok, oraindik autobusa erabiltzen dute eta garrantzitsua ikusten da hurbilago egotea.

Jangelan geratzen den ikasle kopurua handituz doa urteak aurrera doazen heinean. Honek arazo bat suposatzen du otordu garaian, gaur egungo sukaldea ez bait da nahikoa ikasle guztien janaria garaiz eta ondo prestatzeko.
Sukaldeko kanpaiaren motorrak berrikuntza bat behar du eta mahai bero gehiago behar dira ikasle guztien janaria bero mantentzeko. Gainera, gaur egun sukaldeak ez du betetzen suteen aurkako araudia, jangelarekiko itxia beharko luke edo bestela kanpaiak "sistema de autoextinción" bat eduki beharko luke.

3.- GAIA ETA EGITARAUA

Lehen esandako arazoengatik, L.H.1-2 ikasgelei sarrera berri bat egitea beharrezkoa ikusten da. Sarrera berria egiteko, gelak ekialderantz mugitzea proposatzen da, idazkaritzako aterpearen 30,97m2 eraikiak barnean hartuz. Aterpearen zabalera 3 metrokoa da, gaur egun dauden lau ikasgelak 3 metro mugituz ekialderantz, kanpoaldearekin sarrera zuzena egiteko espazio lortuko zen jangelaren eta ikasgelen artean. Honela, L.H.1-2-ko haurrek eta LH 4-5-6 eta D.B.H-ko ikasleek sarrera banandua izango lukete, inbutuak eta jende pilaketak saihestuko ziren. Era berean EA-Hhko haurrentzat jangelarako sarrera-irteera izango zen.

Sukaldea handitzeko, honen alboan dagoen almazena hartzea proposatzen da. Sukaldeak hartutako espazio hori, patioan kokatuko da behin-behineko almazen erabilera moduan, nahiz eta eraikuntza behin betikoa izango den. Behin-behinekoa izango da jarraian datozen fase ezberdinetan patioan kokatutako espazio honen erabilera aldatzea proposatzen delako eta almazena sukalde albora mugitu berriro ere.
Patioan eraiki nahi den behin-behineko almazenarekin batera, ondoan geratzen diren L.H. 1-2 komunak aldatu eta haunditu nahi dira. Zaharkituta geratu dira, eta gainera HHkoentzat daude prestatuta. Patioan egingo den eranskinaren zati txiki bat komun hauentzat izango da, hauen handipena ahalbidetzeko.
Patioaren 15,71m2 okupatuko ziren, batetik almazena eta bestetik LH1-2ko komunak haunditzeko.

4.- ZARAUZKO HIRI ANTOLAMENDUAREN PLAN OROKORRAREN BETETZEA.

23. eremuan aurkitzen da eraikuntza, LA SALLE IKASTETXEA deritzon, antolamendu definituko esparruan. Hurrengo puntuan zehazten diren eraldaketak aurreikusten dira.
3.- Eraikinaren barne-birmoldaketako, finkatzeko eta hobekuntzako obrak onartzen dituzte, eta Xehapen Azterlan bat onartuta, sestra gainean gaur egungo eraikigarritasun fisikoa %10ean handitzeko aukera aitortzen zaio berariaz.
Eraikuntzaren jabeek, gaur egungo eraikuntza mantendu eta hobetzeko, aurrera eraman nahi dute ekintza bat da.
2010ko Urtarrillaren 21ean Zarauzko Udalak Behin betiko onartu zuen " La Salle Ikastetxea. Frontoiaren azalera eraikia haunditzeko" xehetasun azterlana.
Bertan, honako eraikigarritasun fisiko zeudela adierazten ziren:

"Eraikigarritasun Justifikazioa

La Salle Ikastetxeak okupatzen duen lurzatiak 20.852m2 ditu. Bertan bi eraikuntza daude:

- *Aurre hezkuntzako eraikuntzak 2.407m2 eraikiak ditu lau solairutan banatuta; erdisotoa, beheko solairua, lehen solairua eta ganbara.*
- *Lehen eta bigarren hezkuntzako eraikuntzak 4.528m2 eraikiak ditu hauek ere lau solairutan banatuta daude; erdisotoa, beheko solairua eta lehen eta bigarren solairuak. Gainera lehen solairuak 370m2 ko ataripea du.*

Bestalde lurzatian zehar barreiatuta 440.55m2-ko frontoi estalia, bizikletak gordetzeko aparkaleku estalia eta 142m2-ko erdi-lurperatutako aldagela eta kanpoko zerbitzuak aurkitzen dira.

Frontoiari gehitu nahi zaion eraikin berriaren azalera 213.94m2-koa da."

Xehetasun Azterlan berri hontan proposatzen diren eraikigarritasunaren haunditzeak ez dute eraikigarritasunaren %10 gainditzen, (frontoiarena gehituta) beraz, justifikatua geratzen da.

Aterpearen 30,97m2 eraikigarriak okupatzen dira, behe solairuan. Ez dira eraikuntzaren lerrokadurak aldatzen eta aterpearen teilatua mantentzen da.

Patioan 15,71m2 eraikigarriak okupatzen dira, behe solairuan, patio barruan. Solairu bakarrekoa izango litzateke, forjatua lenengo solairuarekin bat eta teilatu planoa izango zuelarik.

ZARAUTZ, 2017-ko Urtarrillak.

Marina Lertxundi Manterola

Arkitektoa, 363.022 elkargokide zenbakia



LH 1-2 GELEN ERABERRITZEA ETA SUKALDEAREN HAUNDITZEA

XEHETASUN AZTERLANA

KOKAPENA — 1

ERAGILEA	LA SALLEKO GURASOEN ELKARTEA	
N	LEKUA	ZARAUTZ
	DATA	2017KO URTARRILLA
	ESKALA	1/5000 Y 1/750
	MARINA LERTXUNDI MANTEROLA	ARKITEKTOA



LH-DBHKO ERAIKUNTZAREN BEHE SOLAIRUA

LH 1-2 GELEN ERABERRITZEA ETA SUKALDEAREN HAUNDITZEA

XEHETASUN AZTERLANA

GAUR EGUNGO EGOERA

2

ERAGILEA	LA SALLEKO GURASOEN ELKARTEA	
N	LEKUA	ZARAUTZ
	DATA	2017KO URTARRILLA
	ESKALA	1/200
	MARINA LERTXUNDI MANTEROLA	ARKITEKTOA



LH-DBHKO ERAIKUNTZAREN BEHE SOLAIRUA

HAUNDITZEA- PATIORUNTZ
15,71 m2

HAUNDITZEA- ATERPERUNTZ
30.97 m2

LH 1-2 GELEN ERABERRITZEA ETA SUKALDEAREN HAUNDITZEA

XEHETASUN AZTERLANA

HANDITZEKO PROPOSAMENA

3

ERAGILEA	LA SALLEKO GURASOEN ELKARTEA	
N	LEKUA	ZARAUTZ
	DATA	2017KO URTARRILLA
	ESKALA	1/200
	MARINA LERTXUNDI MANTEROLA	ARKITEKTOA



LH-DBHKO ERAIKUNTZAREN BEHE SOLAIRUA

LH 1-2 GELEN ERABERRITZEA ETA SUKALDEAREN HAUNDITZEA

XEHETASUN AZTERLANA

GEROKO EGOERA

4

ERAGILEA	LA SALLEKO GURASOEN ELKARTEA	
N	LEKUA	ZARAUTZ
	DATA	2017KO URTARRILLA
	ESKALA	1/200
	MARINA LERTXUNDI MANTEROLA	ARKITEKTOA